

ESKULIBURUA

- Xuxen zuzentzaile ortografikoa
- Elhuyar hiztegiaren plugin-a
- UZEIren sinonimoen hiztegiaren plugin-a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

AURKIBIDEA

SARRERA.....

3

1.- XUXEN zuzentzaile ortografikoa.....

4

2.- Elhuyar Hiztegia euskara-gaztelania/gaztelania-euskara.....

8

3.- UZEIren Sinonimoen Hiztegia.....

11

4.- Laguntza

12



SARRERA

Zure ordenagailuan, hain zuzen ere, zure Office paketean, hainbat hizkuntza-tresna duzu integratuta eta, hortaz, zure eguneroko lanean erabil ditzakezu: hizkuntza askoren **zuzentzaile ortografikoak**, **hiztegi elebidunak** eta **sinonimoen hiztegiak**. Tresna horiek, zalantzarik gabe, laguntza handia ematen digute edozein hizkuntzatan segurtasun handiagoz idazteko.

Euskaraz lan egin nahi izanez gero ere, horrelako tresnak eskuragarri ditugu bertan. Beraz, tresna horiek guztiak lan egiteko oso erabilgarriak direlakoan, txosten honetan horiek baliatzeko argibideak ematen ditugu.

Hori horrela, euskarako tresnen bidez, beste hizkuntzetako tresnen berri ere izango duzu. Hona euskarako tresnak:

- 1.- Xuxen zuzentzaile ortografikoa
- 2.- Elhuyar Hiztegia euskara-gaztelania/gaztelania-euskara
- 3.- UZEIren Sinonimoen Hiztegia




1.- XUXEN zuzentzaile ortografikoa

Ohar orokorra: zuzentzaileak ez dabilta dokumentu menbrete-dunetan edo txantili-dunetan; hobe da, beraz, menbreterik gabeko dokumentuan idaztea lehenago eta, bukatutakoan, menbrete-dunera pasatzea.

Zuzentzaileak, aktibatzeko, beharrezko du testuaren hizkuntza ezagutzea, eta hori lortzeko **testuaren hizkuntza** aukeratu behar da. Horretarako pauso hauek emango dira:

- Hautatu idazten ari zaren testua edo testu osoa.






KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Promoción del Euskara

Goiko menuan aukeratu: **Tresnak > Hizkuntza > Ezarri Hizkuntza**






KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Promoción del Euskara

- Aukeratu **Euskara**
- Sakatu: **Ados**






KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Promoción del Euskara

Testua idaztean akats ortografikorik egonez gero, hitza gorriz azpimarratuta agertuko da. Saguaren eskuineko botoia erabiliz, zuzentzaile ortografikoak akatsa zuzentzeko egiten dituen proposamenak ikusten dira. Zuzenketarekin ados egonez gero, proposatutako forma egokiaren gainean sakatu eta aldaketa egingo da.



Oharra: gogoratu euskarako zuzentzailea erabiltzen den modu berebean erabili behar direla beste hizkuntzen zuzentzaile ortografikoak, hau da, urrats berberak eman behar dira.




2.- Elhuyar Hiztegia euskara-gaztelania/gaztelania-euskara

Kontuan izan baliabide hau erabiltzeko, **ezinbestekoa dela lehenago testuaren hizkuntza aukeratzea**, 1. atalean azaldu dugun moduan.

Zure bulegotika- edo ofimatika-paketeak, Office-k, hainbat hiztegi elebidun du integratuta. Beraz, euskarako, gaztelaniako, frantseseko, ingelesko eta beste zenbait hizkuntzatako ordainak aurkituko dituzu eskuineko ataza-panelean, word-eko testu bat begien bistatik galdu gabe. Testuan agertzen den hitz baten itzulpen edo ordaina jakin nahi badugu, nahikoa da pauso hauek jarraitzea:

- Jarri kursora kontsultatu nahi den hitzaren gainean
- Sakatu saguaren eskuineko botoia
- Zabaltzen den menuan aukeratu **Itzuli** eta egin klik bertan






KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Promoción del Euskara

Pixka bat itxaron eta laster, ataza-panelean, hitzaren ordainak agertuko dira.



Kontsulta gaztelaniako hitz batez egiten badugu ere, besteak beste, euskarako ordainak lortu ahal izango ditugu.




OHARRA: gogoratu euskarako hiztegi elebiduna erabiltzen den modu berberean erabili behar direla beste hizkuntzen hiztegi elebidunak, hau da, urrats berberak eman behar dira. Kontuan hartu tresnak itzulpena zein hizkuntzatatik zein hizkuntzatarara egitea nahi duzun eta, horren arabera, aukeratu hizkuntzak 'hemendik' eta 'hona' laukitxoetan. Baina, ez ahaztu bilatu nahi duzun hitzaren hizkuntza ezarrita izan behar duzula tresna-barraren bitartez.

3.- UZEIren Sinonimoen Hiztegia

Kontuan izan baliabide hau erabiltzeko, **ezinbestekoa dela lehenago testuaren hizkuntza aukeratzea**, 1. atalean azaldu dugun moduan.

Euskarako hitz baten sinonimoak kontsultatzeko, eman urrats hauek:

- Jarri kurtsorea kontsultatu nahi den hitzaren gainean
- Sakatu saguaren eskuineko botoia
- Zabaltzen den menuan aukeratu **Sinonimoak** eta hitzaren sinonimoen zerrenda irekiko da



OHARRA: gogoratu euskarako sinonimoen hiztegia erabiltzen den modu berebean erabili behar direla beste hizkuntzen sinonimoen hiztegiak, hau da urrats berberak eman behar direla. Kontuan hartu zein hizkuntzatan duzun aukeratu behar duzun hitza, bestela ezin dira sinonimoak lortu (**Tresnak** menutik aldatu).

4.- Laguntza

Zalantzarik izanez gero edo laguntza behar izanez gero, idatzi edo deitu:

j-agirregoikoa@ej-gv.es Jone Agirregoikoa tel.: 18119
a-lezana@ej-gv.es Araceli Diaz de Lezana tel.: 18112